

PRENTSA-OHARRA

Leticia Paschetta artista eta arkitektoak LAINOA. Paisaia lainotsuetan jolastea inauguratu du Azkuna Zentroa - Alhondiga Bilbaon



Leticia Paschetta artistaren LAINOA. Paisaia lainotsuetan jolastea proiektua

- **Artea, diseinua eta egiturazko berrikuntza uztartzen dituzten esperientzia espazialean oinarritzen da proposamena**
- **Programazioak bisita gidatuak eta haurrentzako irakurketa eta sorkuntza artistikoko jarduerak eskaintzen ditu**

LAINOA. PAISAIA LAINOTSUETAN JOLASTEA LETICIA PASCHETTA

Noiz: 2024ko abenduaren 17tik, 2025ko martxoaren 2ra
Non: Galería Mediateka

Informazio gehiago prentsa@azkunazentroa.eus postan edo
+34 648 77 33 73 telefonoan

Bilbo, 2024ko abenduaren 18an. Leticia Paschetta artista eta arkitektoak **LAINOA. Paisaia lainotsuetan jolastea** aurkeztuko du Azkuna Zentroko Mediateka Galerian, bere “paisaia ludikoen” proposamen berri bat. **Artea, diseinua eta egiturazko berrikuntza uztartzen dituzten esperientzia espazialak** dira. Instalazioa ehun-espazio esekien gisa egituratzen da, eta gorputzak horietan hondoratu, eta aldi berean altxatzen dira mugimendu zehaztugabe, aldakor, ludiko eta aske batean.

Giza interakzioan ardaztutako instalazioak dira. Sortzailearen hitzetan: **“gure pertzepzioa eta jolasteko, amesteko eta sentitzeko dugun modua aldatzeko aukera aztertzen dute”.** *LAINOA. Paisaia lainotsuetan jolastea* instalazioak hiru ardatz nagusi hauek ditu oinarrian: “lanbroen atmosferak” sortzea, muga lausoen ideari eta materia eta ekintza uztartzeari buruzko hausnarketa bat; “barne-geruzen barruan egoteko gonbidapena, barnekotasun sakonaren esplorazio gisa; eta ustekabekoari eta intuitiboari buruzko ikerketa zorrotza, “ageriko hauskortasun-egiturak” sortuz.

Leticia Paschettaren hitzetan: **“Lanbroa eta lainoa kontzeptu liluragarriak dira, artista asko inspiratu dituzte historian barrena,** errealitatearen izaera, memoria eta pertzepzioa aztertzeko, misterioa, egoera emozionalak, ziurgabetasuna eta identitatea sinbolizatzen baitituzte. Lanbroan ezabatzen dira errealitatearen eta fantasiaren arteko mugak, espazio ambiguo eta konplexu bat sortzen da, eta, hor, ikusten duguna gure irudimenarekin osatzen da”.

Hortik abiatuta, publikoari proposatzen dio “Bruma instalazioko paisaia ludikoan jolastea, garbia ez denaren eta lausoren artean, sumatzen, agertzen, ezkutatzen, aurkitzen denaren eta harritzen gaituenaren artean”.

Erakusketaren inguruko jarduerak

Erakusketaren esparruan eta Mediateka Gabonetan programazioaren barruan, artea, diseinua eta egiturazko berrikuntza uztartzen dituzten **esperientzia espazialak** proposatzen zaizkie familiei, abenduaren 26, 27 eta 28an eta urtarrilaren 2, 3 eta 4an. Gehienez ere 4 eta 12 urte bitarteko 15 haurrek parte hartu dezakete *LAINO*Aren edukia eta forma artistikoan, hainbat materialekin sortu eta esperimentatuz. Sarrera dohainik da Mediatekako Txikitekan izena eman ondoren, jarduera hasi baino 10 minutu lehenago.

Gainera, erakusketa osatzeko, hainbat **jarduera** antolatu dira, hala nola **sarrera-ibilbideak**, urtarrilaren 10, 17, 24 eta 31n eta otsailaren 7, 14, 21 eta 28an. Urtarrilaren 11n eta 25ean, larunbatetan, eta otsailaren 8an eta 22an, Irakurketa eta sorkuntza artistikoko saioak Mediatekan. Instalazio artistiko honen lanbro artean paseatuz, 6 eta 12 urteko haurrek aukera izango dute **irakurketak** eta leku ezinezkoak aurkitzeko, horietan irakurri eta esperientzia sortzaileak izateko.



Leticia Paschetta artistaren *LAINOA*. *Paisaia lainotsuetan jolastea* proiektua

Leticia Paschetta

Artista ludikoa, arkitektoa eta diseinatzailea. Diseinuko Masterra egina du (Nafarroako Unibertsitatea). Richter Spielgeräte enpresa alemaniarreko diseinatzailea, ikertzailea eta unibertsitateko irakaslea. Bere lanak erakusgai egon dira New Yorken, Londresen, Bilbon, Bartzelonan eta Argentinan.

Leticia Paschettaren lanaren ardatza da “paisaia ludikoak” asmatzea, artea, diseinua eta egiturazko berrikuntza uztartzen dituzten esperientzia espazialak, gure pertzepzioa aldatzeko aukera eta jolasteko, amesteko eta sentitzeko dugun modua aztertuz. Ekoizpenak modelo txikiak, instalazioak eta arkitektura biltzen ditu. Bere lan-eremuan artea eta zientzia uztartzen dira; ehunek, maketek eta jostura-moldeek bat egiten dute egiturazko analisi-programekin.



PROGRAMAZIOA

Mediateka Gabonetan

Instalazioa ehun-espazio esekien gisa egituratzen da, eta gorputzak horietan hondoratu, eta aldi berean altxatzen dira mugimendu zehaztugabe, aldakor, ludiko eta aske batean. Jarduera honekin, haurrek aukera izango dute instalazio honen edukira eta forma artistikora hurbiltzeko.

Ordua - Adina

2024ko Abenduak 26, osteguna eta 27, ostirala

Ordua: 17:30 –18:30

Norentzat: 6 - 12 urte

2024ko Abenduak 28, larunbata

Ordua: 12:00-13:00

Norentzat: 4 - 6 urte (pertsone heldu batekin)

2025ko Urtarrilak 2, osteguna eta 3, ostirala

Ordua: 17:30 –18:30ç

Norentzat: 6 - 12 urte

2025ko Urtarrilak 4, larunbata

Ordua: 12:00-13:00

Norentzat: 4 - 6 urte (pertsone heldu batekin)

Sarrera-ibilbideak

Data

Ostirala: Urtarrilak 10, 17, 24, 31

Ostirala: Otsailak 7, 14, 21, 28

Ordutegia: 18:30ean

Iraupena: 15min

Hizkuntza: Euskara eta gaztelania, eskariaren arabera. Hilabete bakoitzeko lehen ostegunean, bisita euskaraz izango da.

Edukiera: gehienez 20 pertsona bisita bakoitzeko, gidaz gain.

Edukiera minimoa: 4 pertsona

Irakurketa eta sorkuntza artistikoko saioak Mediatekan

Instalazio artistiko honen lanbro artean paseatuz, hurrek aukera izango dute irakurketak eta leku ezinezkoak aurkitzeko, horietan irakurri eta esperientzia sortzaileak izateko.

Data: Urtarrilak 11, 25; otsailak 8, 22, larunbata

Ordua: 17:30

Iraupena: 60'

Adina: 6-12 urte

Espazioa: TK101

Edukiera: 15 lagun gehienez

Sarrera: Dohainik Mediatekako Txikitekan izena eman ondoren, jarduera hasi baino 10 minutu lehenago

Informazio gehiago, irudiak edo elkarrizketak

prentsa@azkunazentroa.eus

Tels. +34 648 773 373